

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Ez da kasualitatea



Amaia Alvarez Uribe

2006an Judith Butlerren *Undoing Gender*. 2007an *XXY* pelikula. 2008an, Beatriz Preciadoren *Testo Yonqui*, Euskal Herriko Jardunaldi Feministak (Portugaleten) eta Feminismo Porno Punk jardunaldiak (Donostian). 2009an, Virginia Despentesen *King Kong Théorie*, Espainia-ko Estatuko Jardunaldi Feministak (Granadan) eta... *Stereo* antzezlanaren estreinaldia.

Ez da kasualitatea antzezlan horretan generoaren, gorputzaren eta desioaren gaineko gogoeta egitea aurreko lan eta topaketetan trans-feminismoaz eta queer teorian aritu ostean.

Ez da kasualitatea *Stereo* izenburua jarri izana performance honi, Miren Gaztañagak bere baitako alde femenino eta maskulinoak androginiaren ideiarekin inguruan askatu eta haiekin jolastu ondoren.

Ez da kasualitatea estreinatuta eta bederatzi urtera liburu formatuan argitaratutakoan gidoi dramatikoak soilik agertu ez izana, izan ere, sorkuntza pertsonaletik abiatutako talde-lana partekatu nahi izan dute: sortze prozesua, inspirazio iturriak, antzezlanaren deskribapena, lan pertsonalari buruzko gogoeta, lan taldearen esperientzia (Ainhoa Jauregi, Ainhoa Resano, Ibon Agirre), gonbidatuen ekarpenak (Kattalin Miner, Jokin Azpiazu, Miren Narbaiza Martiartu, Oihana Garro Larrañaga), eta EHAZEko Oier Guillanen hitzostea.

Ez da kasualitatea nagusiki gorputzarekin eta musikarekin egindako lana izatea eta oso testu gutxi egotea, dantza eta antzerkiaren arteko obra bat da, azalaren azpian bizi diren ni-ei lokarriak soltatu eta arnasa eman diela-

Stereo

MIREN GAZTAÑAGA

EHAZE, 2017

Miren Gaztañaga aktorea
(Irun, 1979).



ko, erabili dituen hiru testu laburrak ekintza eta pertsonaia artean tartekatuz.

Ez da kasualitatea hasieran bi eta amaieran lau pertsonaiak parte hartzea, hasierako galdera eragileen artean hauek izan zituela kontuan hartzen badugu: “Nor naiz ni? Zenbat ni daude nire barruan? Izateko baimena ematen diet guztiei?”, jendartean inposatu zaizkigun rol femenino eta maskulinoak nola bizi eta sentitzen ditugun jabetzean eta ahalduntze prozesu bati hasiera –edo jarraipena– ematea. Eta, ez da kasualitatea oraindik han eta hemen antzeztea, aurreko urte hasieran azken aldiz –oraingoz– Oiertzen antolatuta zizutzen *Genero praktikak* jardunaldietan.

“Euskal Herrian bada arlo eszeniko ausart, probokatzaile eta moduetan garaikide bat, kasu askotan ezagutua izateko zain dagoena” (Oier Guillan). Aukera baduzue, irakurri eta ikus-entzun ezazue, merezi du eta gure barrua tarteka astintzeak. ■